

## LANERAKO FITXA: *SUPER PEPO ETA ANA*



### Jarduera honekin, zera landuko dugu

Besteei arreta eskaini behar diegula.

Gure beharra dutenei lagundu egin behar diegula.

Zerbait lortzeko, ahalegina egin behar dugula.

GJH: **4.a**, hezkuntzak maila guztietan duen garrantziagatik, eta **16.a**, ikasgeletan gehiegikeriaz jarduten dutenek eragiten duten egiturazko indarkeriagatik.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

### Iraupena

Saio bat.

### Beharko dugun materiala

*Super Pepo eta Ana* ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

### Aurretiazko oharrak

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Denok daukagula besteei laguntzeko gaitasuna.
- Egunerokoan, gure beharra daukan jende askori lagun diezaiokegula.
- Beste pertsonetikiko gehiegikeriaz jardutea ez dela onargarria, ezta gehiegikeria hori arina den kasuetan ere.

### Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

### Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Gutxi batzuek bakarrik dauzkate superboteak.
- Akademian ikastea oso erraza da eta Pepok ez du ahalegin handirik egin behar; noizean behin bakarrik joatearekin aski du.
- Akademian pertsoneri maitasunez laguntzen erakusten diote, besteak beste.
- Ana oso ondo moldatzen zen Matematiketan.
- Ikasgelan, Leirek eta bere lagunek asko laguntzen zioten Anari.
- Pepok lagundu egin zion Anari.
- Akademiara iritsi zenean, kanporatu egin zuten Pepo, berandu iristeagatik.

### Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Pepok ahalegina egin behar al du Akademiara joateko?
- Zerbait lortu nahi dugunean, baina hori lortzeko ahalegina egin behar dugunean, zer egiten dugu?
- Gure gelan ba al dago Leirek eta bere lagunek bezalako jokabidea duen inor?
- Zer egiten dugu horrelako egoeren aurrean? Isilik geratu, haiekin bat egin ala egoerari aurre egin?
- Zuen ustez, gaiztoek bakarrik egiten al diote mina jendeari? Nahi gabe egin al daiteke mina? Irakurri dugun ipuinean, Leirek eta bere lagunek egiten al diote minik Anari?
- Superheroi bat izan behar al da besteei laguntzeko?
- Zer egin zuen Pepok Anari laguntzeko?
- Pepo aitzakiak jartzen hasi zen Akademiara berandu iritsi zenean. Zuei gertatu al zaizue inoiz horrelakorik? Egia esan beharrean, aitzakiak jartzen ibili al zarete? Nola sentitu zarete hori egitean?
- Zuen ustez, ondo jokatu al zuen Pepok? Zuek, bere lekuan, hori egingo al zenuten?

Ipuin honek irakaspen garrantzitsu batzuk jasotzen ditu. Aipatu zuen arreta piztu duten batzuk.

## SUPER PEPO ETA ANA

Kaixo, lagunok! Ni Pepo naiz.

Duela urtebete amaitu nituen ikasketak Jotamgo Superheroien Akademian, eta azken hilabete hauetan han ikasitako guztia praktikan jartzen aritu naiz.

Entrenatzen ere ibili naiz, noski. Izan ere, benetako superheroientzat, zailena ez da kapa lortzea, kapa izaten jarraitzea baizik. Ez dugu segundo bakar batez ere despistatu behar!

Ze azkar igarotzen den denbora! Gogoan dut amak nola esan zidan:

—Pepo, gauza garrantzitsu bat esan behar dizut. Zuk, beste edozeinek bezala, superbotereak dauzkazu, eta besteei laguntzeko erabil ditzakezu superbotere horiek. Benetako superheroi bat izaten ikasi behar duzu. Horregatik, Jotamgo Superheroien Akademian apuntatu zaitugu.

Jotamgo Superheroien Akademian! Nik uste nuen amak errieta egin behar zidala, logela txukundu ez nuelako, eta hara!

—Baina ni izan al naiteke superheroi? Nik uste nuen superheroiak pelikuletan bakarrik existitzen zirela.

—Ez, Pepo, mundua benetako superheroiez beteta dago. Denok izan gaiteske superheroi. Baina, horretarako, gogor entrenatu behar da. Horregatik joan behar duzu Akademiara.

Oso nekagarria zen goizez eskolara joatea eta arratsaldean Akademiara. Gainera, etxeko lan bikoitzak izaten nituen, eta azterketak ere bai! Baina, hala ere, merezi zuen!

Lehenengo egun haiek nolakoak izan ziren kontatuko dizuet, eta nire lehen kapa nola lortu nuen ere bai.

Akademiako irakasleak oso zorrotzak dira, baina, hala ere, oso ongi pasatzen dugu. Gure irakasgaiek ez dute eskolakoekin zerikusirik. Niri gehien gustatzen zaizkidanak hauek dira: «Jendeari maitasunez nola lagundu» eta «Beharra duenari nola lagundu». Zaila egiten zait, ordea, «Zure indarra nola kontrolatu» irakasgaia.

Klaserik dibertigarrienak praktikoak izaten dira. Dekoratu erraldoi batzuk ditugu, hirien modukoak, eta jendea irudikatzen duten robotak dauzkagu. Horiekin praktikatzen dugu nola jokatu behar dugun arriskua sortzen denean, eta zer egin behar dugun edo ez dugun egin behar.

Aurreko batean, proba garrantzitsu bat gainditu behar izan genuen: zuhaitz batera igo eta ezin jaitsi geratu zen katu bati lagundu behar genion. Ni, egia esan, ez naiz zuhaitzetara igotzen oso trebea. Pare bat aldiz igotzen saiatu nintzen, baina bietan lurrera erori nintzen; beraz, beste irtenbide bat bilatu behar nuela pentsatu nuen. Orduan, «Irudimenaren indarra» irakasgaian ikasitakoa gogoratu nuen.

Arazoen aurrean, gure irudimenaz baliatzen erakutsi ziguten hor. Inguruan zer zegoen begiratu nuen, eta kaxa pila bat ikusi nuen roboten biltegiaren aurrean. Orduan, ideia bat bururatu zitzaidan.

Kaxak elkarren gainean jarrita, eskailera moduko bat egin nuen, eta oso harro geratu nintzen egindakoarekin. Baina zailena geratzen zitzaidan: zuhaitzeraino igotzea! Txikitandik, beldur handia ematen zidan altuerak, baina katu horrek nire laguntza behar zuen! Beldur pixka bat nuen aurren, pixkanaka goraino iritsi nintzen. Besoa ahalik eta gehien luzatu, katutxoa hartu, eta oihu egin nuen: «Lortu duuuuuuut!».

Eta, orduan, pikutara guztia: kaxak mugitzen hasi ziren, oreka galdu nuen, eta lurrera erori nintzen. Baina bete nuen helburua! Katutxoa onik zegoen! Besoen artean hartu nuenez, ez zuen minik hartu. Kontuz-kontuz, leku seguru batean utzi nuen, eta kaxa guztiak biltzen hasi nintzen. Bueno, hain leku seguruan ez nuen utzi, txakurraren etxolaren aurrean utzi nuen-eta! Eskerrak txakurra robot bat besterik ez zen, bestela...

Beti gauza bera gertatzen zait: entrenamenduak kontatzen hastean, emozionatu egiten naiz, eta ahaztu egiten zait zer kontatzen ari nintzen! A, bai! Gogoratu dut: nire lehen kapa lortu nueneko kontatzen ari nintzaizuen.

Egun hartan, oso kezkatuta nengoen, arratsaldean proba bat egin behar nuelako, egoera zailen aurrean nola moldatzen nintzen erakusteko. Lurra meteorito baten aurrean defendatu beharko nuela pentsatzen nuen, edo zomorro erraldoi batzuen aurrean borrokatu beharko nintzela!

Goizean oso urduri egon nintzen eskolan. Laurak jo orduko, korrika joan nintzen aldagelara, nire superheroi jantzia janztera.

Baina, aldagelara iristear nengoenean, Ana ikusi nuen, banku batean eserita, negarrez. Ana nire ikaskide bat da.

Hasieran, presaka nenbilenez, ez nion kasurik egin, baina, gero, pentsatu nuen ez nuela bakarrik utzi behar. Beraz, buelta erdia eman, eta bere ondoan jarri nintzen.

—Ana, zer gertatzen zaizu? Zergatik zaude hain triste?

—Lasai, Pepo. Ez zait ezer gertatzen. Ez nago triste.

«Nola jakin nork behar duen laguntza» irakasgaien, besteek zer sentitzen duten jakiten erakutsi ziguten, eta nik Bikain atera nuen azterketan. Oso ondo nekien Anari zerbait gertatzen zitzaiola eta triste zegoela.

—Ana, triste ez bazaude, zergatik daukazu aurpegi hori?

—Ongi da, Pepo, esango dizut. Oso kezkatuta nago. Gogoratzen al duzu Matematikako irakasleak zer esan digun? Bihar goizean azterketa izango dugula. Eta kontua da ez dudala ezer ulertzen.

—Eta zergatik ez duzu gelan ezer esan?

—Ba lotsa ematen didalako. Badakizu Leire eta gelako beste batzuk barrez hasten direla galderak egiten ditudanean.

Ana zuzen zebilen. Leire eta bere lagunak besteen kontura barrez aritzen ziren beti. Egunen batean, benetako superheroi bat naizenean, zerbait egin beharko dut hori konpontzeko.

—Baina, ezer ulertzen ez baduzu, nola egin dituzu orain arte Matematikako ariketak?

—Nire aldamenekoari kopiatzen nizkion, bera konturatu gabe. Badakit kopiatzea oso gaizki dagoela, baina lotsa ematen zidan galderak egiteak eta besteek ezer ulertzen ez dudala jakiteak. Hala ere, azterketa oso gaizki egingo dut, eta notak ematen dizkigutenean barre egingo didate denek.

—Nahi baduzu, lagunduko dizut.

—Benetan? Baina beti presaka ibiltzen zara-eta.

Orduan, Akademiako proba etorri zitzaidan gogora. «Ai, ene! Akademiako proba! Ez naiz garaiz iritsiko! Bueno, orain, Anari laguntzea da garrantzitsuena. Gero pentsatuko dut zer egin». Liburutegira joan ginen, eta, Anaren ondoan jarrita, zalantza guztiak argitu nizkion.

Gainera, hainbat ariketa egin zituen nire ondoan, dena ondo ulertu zuela ziurtatzeko.

Handik ordubetera, bakoitza bere etxera joan ginen.

Arropa ziztu bizian aldatu, eta Superheroien Akademiara joan nintzen.

Bidean, mila aitzakia pentsatu nituen, irakasleari azaltzeko zergatik iritsi nintzen berandu. Eta, halako batean, ikasgelara nindoala, zas!, aurrez aurre topatu nuen irakaslea.

Azkar-azkar hitz egiten hasi nintzen, eta kontatu nion Akademiarako bidean gaizkile batzuk ikusi nituela, eta banketxe bat lapurtu nahi zutela, eta geldiarazi egin nituela, eta... Irakasleak, orduan, esan zidan:

—Zorionak, Pepo! Gaingitu duzu proba!

—Zer? Gaingitu egin dudala? Baina berandu iritsi naiz-eta!

—Hona iritsi baino lehen, jada erakutsi duzu erakutsi beharrekoa, Pepo. Anari laguntzen aritu zara, eta horrek erakusten du benetako superheroi bat zarela.

Horrela lortu nuen Akademian nire lehenengo kapa, lagunok. Kapa urdina. Gero, entrenatzen jarraitu nuen, eskoletara joaten, probak gaingitzen, gainerako kapak eskuratzen... Baina lehenengo urte hartan ikasi nuen benetako superheroia izateko ez dagoela superbotereak eduki beharrik; besterik gabe, besteei laguntzeko gogoia izan behar da. Eta onena da **guztiok izan gaitzkeela benetako superheroi!**